



Podcasten programa berriak consonni radio **AZrekin programazioan, deialdi publiko** **baten ondorioz**

Gai eta formatu anitzak daude 2019ko programazioan: musika esperimental, zinema eta irrati euskaraz, komikia, soinu-dokumentala, sentimenduen artxiboa, jabetza intelektuala eta autokudeaketa...

consonni argitaletxeak gune kultural independentea du Bilboko San Frantzisko auzoan eta 2018an eta 2019an Azkuna Zentroko 'kolektibo egoiliarra' da. Kasu honetan consonniren proiektuaren funtsa irrati da; formula kritiko gisa darabilte irrati, nahiz eduki kulturala taldean egiteko nahiz hedatzeko. Irrati showak egin dira zuzenean jendea bertan dela eta podcast programak ere bai (Alicia San Juan, Tania Arriaga, Arrate Hidalgo eta Laura Lazkano edo Xabier Erkizia... zuzendari direla) Gorka Eizagirrek diseinatutako irrati-estudiotik. 2019 hasieran deialdi publiko bat antolatu zen begirada zabaldu eta beste ahots kritiko batzuei ere aukera emateko.

Azkuna Zentroak eta consonni kolektiboak, consonni radio AZrekin irrati berezi honen markoan, podcasten programa bat egiteko deialdi publikora aurkeztu eta hautatu diren proiektuen berri eman dute, 2019ko martxoaren 1ean amaitu baitzen deialdi hori.

Deialdi honetan definitutako balorazio-irizpideak hauek dira: eduki kultural kritikoa eta kalitatezkoa hedatu eta igortzeko gaitasuna; formatu eta eduki alorrean esperimentatuz *podcastingaren* mugak gainditzeko nahia eta proposatutako ideien bideragarritasuna. Hauek izan dira epaimahaiko kideak: Alberto de la Hoz, soinu-teknikaria, Itziar Ijalba, Azkuna Zentroko komunikazio-arduraduna; Montserrat Brunet, consonniko kidea; Jaime de los Ríos, artista eta Ane Zabala, kazetaria. Aurkeztutako proposamen kopuruaren eta kalitatearen balorazio oso positiboa egin dute. Oso zaila izan da erabakitzea eta azkenean epaimahaiak proposamen hauek aukeratu ditu lehentasun ordenaren arabera; horietatik sei egingo dira eta zazpigarrena ordezkoa izango da:

Voces que caminan, Gabriel Villota

Phoenix Ragazza, Jone Uriarte eta Lur Olaizola

Black surgery / Robar como un artista, Libe Belandia

T.R.A.U.M.A (Transiciones. Resistencias. Utopías. Migraciones. Anormales), Sacchi – de Santo

Propiedad Intelectual en femenino y autogestión, Intangia, ondasun ukiezinen defentsarako elkarte

Contracòmic, Borja Crespo

Ordezkoa *Melodrama* da, Maria Rogel "Lapor"ek aurkeztua.



2019an grabatuko dira sei programak, jendea bertan dela, Azkuna Zentroko atarian dagoen “consonni radio AZrekin” estudioan eta online ere emango dira. Programa bakoitzak pasarte desberdinak ditu, batzuk ordu erdikoak eta besteak ordubetekoak.

Voces que caminan Gabriel Villotarena da, eta soinu-dokumentalaren eta saiakeraren arteko formatu hibridoa da. Soinu-collagean musika, ahotsak eta landako grabazioak daude, isiltasuna bilatu nahi du eta gorputzak mugitzean ateratzen duen soinua ere bai. *Phoenix Ragazza* Jone Uriarte eta Lur Olaizolarena da, euskara hutsean egindako programa da eta Lizzie Bordenen *Born in Flames* (1983) filmeko irrati-piratari zor dio izena. Zinemaren eta irratiaren harremana planteatzen du ikuspegi feministatik, eta begiak, begirada, entzunaz eraldatzeko proposatzen digu. *Black surgery / Robar como un artista* da Libe Belandiaren proposamena, zuzenean egindako soinu-esperimentazioa, kopiaren, pastichearen eta looparen artean dabil, jada badauden musikak hartu eta musika-konposizioak sortzen ditu. *T.R.A.U.M.A (Transiciones. Resistencias. Utopías. Migraciones. Anormales)* Sacchi - de Santorena da eta migrazioari eta sexu-disidentziari buruzko artxibo bat sortzea planteatzen du. *Propiedad Intelectual en femenino y autogestión* da Intangiaren proposamena. Ondasun ukiezinen defentsarako elkarteak eztabaida bat hedatzea proposatzen du, jabetza intelektualaren eta autogestioaren arloan emakumeek duten egoerari buruz, emakume sortzaileei tresnak emateko pasarte batzuekin. *Contracómico* da Borja Cresporen planteamendua eta komikian dauden beste mundu batzuk aurkitzea planteatu du: fanzinea, objektu artistiko gisa; autoedizioa, adierazteko modu gisa; tebeoa, aktibismo gisa...

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu deialdi honetan parte hartu duten pertsona guztiei, irratsaioak garatzeko proposamenak aurkeztu dituztelako.